



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

GIZA ESKUBIDEAK, BERDINTASUNA ETA HIRITARTASUNA

PROGRAMA 2014-2020

ERREFERENTZIA	Giza Eskubideak eta Hiritartasuna Programa 2014-2020 (Europako Batzordea. Justizia, Askatasuna eta Segurtasuna ZN).
HELBURUA	<p>Programaren xedea berdintasuna eta pertsonen eskubideak efektiboki sustatzeko, babesteko eta gauatzeko eremu bat garatzen laguntzea da.</p> <p>Honako berriazko helburuak ere lortu nahi dira:</p> <ul style="list-style-type: none">- Sexu, arraza edo etnia jatorri, erlijio edo sinesmen, adin edo sexu joera arrazoiengatik diskriminazio ezaren printzipioaren ezarpen efektiboa sustatu eta diskriminazio ezaren printzipioa errespetatzea.- Arrazismoa, xenofobia, homofobia eta bestelako intolerantzia erak prebenitu eta borrokatu.- Minusbaliotasunen bat duten pertsonen eskubideak sustatu eta babestu.- Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatu eta praktika desberdinetan genero gaien integrazioan aurrera egin.- Adingabe, gazte eta emakumeen aurkako biolentzia mota guztiak prebenitu eta borrokatu eta baita bestelako arrisku taldeen kontrakoa ere, bereziki, gertutasun harremanetako arrisku taldeak. Era berean, biolentzia mota hauetako biktimak babestu.- Adingabeen eskubideak sustatu eta babestu.- Pribatutasun eta izaera pertsonaleko datuen babes mailarik altuena bermatzera lagundu.- Batasuneko hiritartasunetik eratorritako eskubideen gauzatzea sustatu eta hobetu.- Barne merkatuan kontsumitzaile edo ekintzaile diren heinean, pertsonen bere eskubideak gauzatzea ahalbidetu.
EKINTZAK	<p>Beste hainbat artean, honako ekintzak finantzatu dira:</p> <p>a) Datu bilketa eta estatistikak; amankomuneko metodologiaren garapena eta, egokia denean, erreferentziazko adierazle eta parametro amankomunena; azterlanak; ikerketak; analisiak eta galdetegiak; ebaluazioak; gida, txosten eta hezkuntza edukien prestaketa eta argitarapena; tailerrak, mintegiak, adituen bilerak eta hitzaldiak bezalako ekintza analitikoak.</p> <p>b) Langileen hartu-emanak, tailerrak, mintegiak, trebatzaileen trebakuntza eta online trebakuntzarako tresnen garapena bezalako trebakuntza ekintzak edo bestelako trebakuntza erakoak.</p> <p>c) Elkarrenganako ikaskuntza; jardunbide egoki, ikuspegi eta esperientzia berritzaileen identifikazioa eta hartu emana bezalako sentsibilizazio eta zabalkunde jarduerak; homologoen egindako berrikusteen antolaketa eta elkarrenganako ikaskuntza; hitzaldi, mintegi, hedabideetako kanpainen antolaketa; informazio kanpaina; programaren eta honen emaitzen inguruko dibulgaziozko edukien konpilazioa eta argitarapena; informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzen dituzten sistema eta baliabideen garapena, ustiaketa eta mantenua.</p> <p>d) Programaren helburuak lortzera laguntzen duten eragile nagusien ekintzen babesa.</p>
ONURADUNAK	Erakunde publiko edo pribatuak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak. Irabazi asmoa duten erakundeak, irabazi asmorik gabeko edo erakunde publikoekin batera aurkeztu behar dira.

AURREKONTUA	439.473.000 euro
GAUZATZE ALDIA	2014-2020
INTERESEKO ESTEKAK	Programa ezartzen duen arautegia Europako Batzordeko web orrialdea - Justizia
INFORMAZIO GEHIAGO	Europako Batzordea Justizia, Askatasuna eta Segurtasuna ZN JLS/D/4 Unitatea Avenue du Bourget 1 B-1040 - Brusela Fax: 32-2-296 76 23 JLS-FRC-PROGRAMME@ec.europa.eu